



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko ekainaren 26a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-26/MOC-00099. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektoreari buruzko lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat aurkez dezan, ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak ezarriko dituen. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (2. or.).
- 11-26/MOC-00102. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurak berrikusi, sinplifikatu eta arindu ditzan. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (3. or.).
- 11-26/DEC-00031. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta zaintzaile nagusi direnei laguntzeko politika publikoak indartzea. Eledunen Batzarrak onetsi du (3. or.).
- 11-26/DEC-00032. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak 2026ko ekainaren 28an bat egiten baitu LGTBI+ Harrotasunaren Egunaren ospakizunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/PEOP-00002. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko. Izendapena (5. or.).
- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (6. or.).
- 11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea. Hautagaitzak aurkezteko epea luzatzea (6. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-26/MOC-00099. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektoreari buruzko lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat aurkez dezan, ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak ezarriko dituen

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2026ko ekainaren 23an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektoreari buruzko lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat aurkez dezan, ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak ezarriko dituen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Aurkez dezan Nafarroako biogasaren eta biometanoaren sektorearen lurralde-, ingurumen- eta agronomia-plangintza bat, zeinak ezarriko baititu ezarpen-irizpide argiak eta objektiboak, eremuen araberako ahalmen-mugak, digestato-kudeaketa, plangintza logistikoa, inpaktuen metatze-ebaluazioa eta udalek eta herritarrek parte hartzeko bide errealak.

2. Luzamendua onetsi zenetik egindako jarduketak guztiei buruzko txosten osatu bat bidal diezaion Nafarroako Parlamentuari, bertan jasorik Nafarroan dauden biogas- eta biometano-proiektu

guztien egoera eguneratua, emandako, etendako edo deuseztatutako baimenak, izapidetutako foru-intereseko deklarazioak eta sektorearen zuzenbide-, ingurumen- eta lurralde-segurtasuna bermatzeko hartutako neurriak.

3. Luzamenduaren esparruan aurreikusitako sektorearteko mahaiaren deialdia modu eraginkor eta loteslean egin dezan, udalen, kontzejuen, toki-entitateen, nekazaritza-erakundeen, kooperatiben, aditu teknikoaren, unibertitateen, auzo-plataformen eta sektorearen ordezkarien parte-hartze eraginkorra bermaturik, Nafarroan biogasa eta biometanoa garatzeko eredu ordenatu, garden eta lurralde-orekazkoa definitzeko xedez.

4. Proposamen bat egin dezan, denboran zabaltekoa ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituen 17/2020 Foru Legea aldatzearen ondoriozko luzamendua, agerikoa baita departamentuak berak ez duela sektorearen arau-, lurralde-, agronomia- eta ingurumen-garapenik egin, oraindik ez baita bete Nafarroako Parlamentuak hura onestea politikoki justifikatu zuten antolamendu-, plangintza- eta erregulazio-helburuen zati mardul bat”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00102. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurak berrikusi, sinplifikatu eta arindu ditzan

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2026ko ekainaren 23an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta landa garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurak berrikusi, sinplifikatu eta arindu ditzan. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du:

1. Egin dezan, gehienez ere hiru hilabeteko epean, lehen sektoreari, nekazaritzako elikagaien industriari, ingurumenari eta landa-garapenari eragiten dioten administrazio-prozedurei buruzko txosten integral bat, non identifikatuko diren arazo nagusiak, atzerapenak, bikoiztasunak, beharrezkoak ez diren kargak eta administrazio-koordinazioko defizitak. Txosten hori Nafarroako Nekazaritza Kontseiluan aurkeztu eta eztabaidatu beharko da, eta honako hauek hartuko dute parte: nekazari-

tzako erakunde profesionalak, nekazaritzako elikagaien kooperatibek, toki-entitateek, nekazaritzako elikagaien industriek, ureztatzaileen komunitateek, nekazari eta abeltzain gazteek, ingurumeneko basozainek, landa-teknikariek eta inplikaturako gainerako eragileek.

2. Txosten horrekin batera sinplifikazio administrazio-borako plan zehatz bat aurkez dezan, epeak murrizteko, bikoiztasunak ezabatzeke, irizpideak bateratzeko, "behin bakarrik" printzipioa aplikatzeko, prozedura nagusiei buruzko jarraibide argiak eta eskuragarriak ezartzeko eta leihatila administrazio-bateratu bat gaitzeko nekazari-entzate, abeltzain-entzate, kooperatibentzate, nekazaritzako elikagaien industri-entzate eta landa-proiektuen sustatzaile-entzate. Plan horrek egikaritze-egutegi bat, arduradun administrazio-batzuk eta jarraipen-sistema bat ezarri beharko ditu, eta Nafarroako Parlamentuari, Nafarroako Nekazaritza Kontseiluari eta sektoreko partaidetza-organoei bidaliko zaie”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/DEC-00031. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen baitu mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta zaintzaile nagusi direnei laguntzeko politika publikoak indartzea

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta zaintzaile nagusi direnei laguntzeko politika publikoak indartzen jarraitzea.

2. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du familia-ingurumeneko zainketengatik ematen den prestazio ekonomikoaren eta pertsona etxebizi-

tza partikularrean geratzea ahalbidetzen duten baliabide osagarrien arteko bateragarritasuna aztertzea eta zabaltzea.

3. Nafarroako Parlamentuak positibotzat jotzen du gaien erantzukizuna duten administrazio publikoek azter dezatela larrialdi-egoerarako eta zainketak aldi baterako ordeztzeko protokolo espezifikoa sortzea zaintzaile nagusia gaixorik dagoenerako, ospitaleratuta dagoenerako edo mendekotasuna duen pertsonaren zaintza aldi baterako bere gain hartu ezin duenerako.

4. Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako Gobernuak mendekotasun handia duten pertsonentzako, bereziki 65 urtetik beherakoentzako, plaza eta baliabide espezifikoaren sare publikoa indartzen jarraitzea, eguneko zentron, egoitza espezializatuen, tutoretzapeko etxebizitzaren eta familia-atsedenerako baliabideen bidez.

5. Nafarroako Parlamentuak ezinbestekotzat jotzen du aurrera egitea honako hauen sustapenean: zaintzaile nagusi diren pertsonentzako aitoren instituzionaleko neurriak (soldata eta kotizazio duinak), lana eta familia bateragarri egiteko neurriak, prestakuntza, laguntza psikologikoa eta akonpainamendua.

6. Nafarroako Parlamentuak positibotzat jotzen du bai Nafarroako Gobernuak bai toki-entitateek laguntza-ildoak bultzatzen jarraitzea mendeko pertsonentzako eta haien familientzako terapiak, errehabilitazioa, fisioterapia, logopedia, aisialdi egokitu eta kirol inklusiboa sustatzeko.

7. Erabaki hauen berri ematea Nafarroako Gobernuari, Espainiako Gobernuari, Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioari eta mendekotasunaren eta zaintzaren arloarekin lotutako entitate eta elkarteei”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/DEC-00032. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak 2026ko ekainaren 28an bat egiten baitu LGTBI+ Harrotasunaren Egunaren ospakizunarekin

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2026ko ekainaren 22an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak aurten ere bat egiten du LGTBI+ Kolektiboaren Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren ospakizunarekin, zeina heldu den ekainaren 28an eginen baita, eta sexu-askapenaren bandera jarriko du ikusteko moduko leku batean, legebiltzarrak sexu-aniztasunarekin duen konpromisoaren agerkari.

2. Nafarroako Parlamentuak LGTBI+ pertsona guztien eskubide guztiak aldeztu jarraitzeko konpromisoa du.

3. Nafarroako Parlamentuak konkistatutako lege eta eskubideetan aurreratzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du, gure gizarteak berdintasunean,

aniztasunean eta askatasunean aurrera egiten jarrai dezan.

4. Nafarroako Parlamentuak herritarrak animatzen ditu ekainaren 28aren inguruan deitutako mobilizazioetan parte hartzea, bai eta espazio publikoetatik, komunikabideetatik edo sare sozialetatik Harrotasunaren Egunak aniztasunaren aldeko borroka-eguna izaten jarraitzen duela agerian uzten duten sentsibilizazio- eta aldarrikapen-ekitaldiekin bat egitera ere.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako udal guztiei dei egiten die bat egin dezaten Nafarroako Berdintasunerako Institutuak sustatutako LGTBI-fobiarik gabeko udalerrien sarearekin”.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/PEOP-00002. Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Amaiturik Nafarroako Parlamentuaren zerbitzupeko artxiboko eta dokumentu-kudeaketako goi-mailako teknikaria izateko lanpostu bat, funtzionario-araubidekoa eta A mailakoa, oposizio bidez betetzeko hautapen-prozedura (deialdia Mahaiak 2025eko ekainaren 16an hartutako erabakiaren bidez onetsi zen eta 2025eko ekainaren 19ko 122. NAO onargaratu zen).

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2026ko ekainaren 8an hartutako erabakiaren bidez, oposizio-epaimahaiak deialdia gainditu eta puntuazio altuena lortu zuen izangaien alde egindako izendapen-proposamena onetsi zen (izendapen-proposamena 2026ko ekainaren 12ko 64. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen).

Zerbitzu Orokorretako buruak txostena egin du izendatzeko proposatutako pertsonak deialdiko 8.3 oinarrian adierazita dagoen dokumentazio guztia behar den epean eta moduan aurkezteari buruz. Hartara, txosten hori ikusita eta deialdiko 9.

oinarrian ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, artxibo eta dokumentuen kudeaketako goi-mailako teknikari gisa, teknikarien kidegoan (goi-mailako eskala), Argitalpen, Artxibo, Liburutegi eta Dokumentazio Zerbitzuan, jarraian aipatzen den izangaia:

– Gonzalo Goñi Equísoain jauna.

2. Ezartzea izendatutakoak hilabeteko epea izanen duela, izendapen hau jakinarazten zaionetik aitzina, Nafarroako Parlamentuko legelari nagusiaren aitzinean bere lanpostuaz behin betikoz jabetzek, salbu eta aski justifikaturik dauden kasuetan.

3. Erabaki hau interesdunari jakinaraztea, eta zerbitzuburu guztiei igortzea.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikuluekin bat, honako hau erabakitzen da:

1. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko irailaren 8ko 15:00ak arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ELCT-00001. Nafarroako Parlamentuak Senatuari Konstituzio Auzitegiko magistratu izateko aurkeztu behar dizkion bi hautagaiak izendatzea

HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko ekainaren 22an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 42.1.9. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Konstituzio Auzitegiko lau magistratu-postu huts betetzeko bi hautagai izendatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko irailaren 8ko 15:00ak arte** luzatzea.

2. Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko ekainaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

